



Magrebeko kultura bertatik bertara ezagutzeko aukera

TOLOSA ▶ Azoka berezia jarri zuten atzo goizean Trianguloan; antzerkiak, afariak eta musika saioek itxi zuten Magrebeko II. Jardunaldien egitaraua ▶ 6



Henna tailerreko arduradunaren azalpenak aho zabalik utzi zituen Triangulora joandakoak. I. TERRADILLOS

MARIO ZUBIAGA ▶ 18/98+ LAN TALDEKO KIDEA

«Eskubide zibil eta politikoen urratzeak guztioi egiten digu kalte»

Kaiera-k ibilbidea amaituta, ekimenari eta epaiketari buruz aritu da tolosarra ▶ 3



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



I. GARCIA

Amasarrek irabazi dute gazteluarren aurkakoa

AMASA ▶ Lehia estua izan zen atzo Amasako eta Gazteluko kirolarien artean; gaur amaituko dira San Martin jaiak ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Txileko Munduko Txapelketan izandako esperientzia mintzagai

Bost pilotari eta epaile bat solasean ▶ 4-5

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel Kotxe aseguruetan %60 ko beharpenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO
- ETXEAK
- ISTRIPUAK
- ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxes: 943 653462



LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Hilerrien proiektuak
- Panteoiak
- Lurpetik atera
- Hilerrien eraldaketa
- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea
- Eraikuntza ezberdinak
- Estelak
- Gerakinen errausketa
- Hilobi apaingintza
- Fotozeramikak
- Errausketa zerbitzua
- Hilarriak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria
Tel./Faxa: 943 67 01 14 Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552 Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Bertsolari Txapelketa



Ezer baino lehen, eta alde zaurretik, barkamenak eskatu nahi ditut inor minduko balitz. Minduta nago, ordea, ni ere. Arriskua aurreikusen dut. Nire gain hartzen dut dena. Txapelketa Nagusia erdibidean dago. Bide erdian geratu dira asko. Komunikabide-

ekin larrituta nago, kezkatuta, amorrarazita. Idatzizko prentzas ari naiz. Telefonoz egiten diren elkarrizketei errespetua nien lehen. Orain beldurra diet. Telefonoaren beste aldera dagoen *kazetaria* ezer apuntatzen ari ote den zantzak nituen lehen. Orain ez.

Nik badakit titularrak edo izenburu nagusiak direla gehien irakurtzen direnak. Ados. Badakit izenburuak berak jarraian datorren testua irakurtzeko motibagarri izan behar duela. Amu behar du izan. Ados. Baina zergatik nabarmen-tzen dira elkarrizketan norbere erantz-

netan nabarmendu edo azpimarratu ez diren hitzak? Zergatik? Aste honetan, Hendaiaiko finalerdian bigarren geratu ondoren, elkarrizketa bat baino gehiago egin dizkidate. Pozarren eta ilusioz hartu ditut guztiak. Umil eta goxo erantzuten saiatu naiz.

Nire mugak inork baino hobeto dakizkit zein diren. Noraino hel naitekeen. Zer egiteko gai naizen. Non huts egiteko arriskua dudana. Gustura nago eginda-koarekin. Harro ere bai. Baina ez harrotuta. Ez eta pentsatu ere!

Irratia eta prentsa idatzia lehengu-

suak izango dira, baina ez odol berekoak. Ez horixe! Irratian ez dago manipulatzerik, aldatzerik... Hanka sartu dezakezu, baina hanka sartze horren erantzunkizuna norberarena da erabat. Egunkarrietan, ordea, ez.

Amajari haizea burura igo ote zaion entzun dut, eta horrek min handia egin dit. Eta ez dut uste horretarako biderik edo arrazoirik eman dudarik. Izenburuek eragin dute hori. Nik ez dut Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean hanka bat dudarik esan. Nik ez dut finala helburu. Finalak ez dit lorik zapuzten. Nire asmoak eta desioak kumpplituta daude eta gustura nago. Horixe bakarrik esan nahi nuen.

ARGAZKI ZAHARRA ▶

1955. urtean
jaiotakoak
festa giroan
elkarturik

Leire Montes ▶ 1955. urtean jaio ziren hainbat tolosar dira argazkikoak, Berazubiko eskolaren atarian. Atzo, irudian baino koskortuago ziurrenik, berri-ere elkartzeko aukera izan zuten, mende erdia ospatzeko. Izan ere, aurrean 50 urte bete dituztenen jaia antolatu zuten zenbait lagunek. 11:00etan, hitzordura joandakoek argazkia atera zuten Hirukide Jesuitinak ikastetxean. Eta 14:00ak aldera autobusa hartu zuten, Izaskun jatetxean bazkaltzeko. Izango zuten, bai, makina istorio elkarri kontatzeko! HITZA

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

**SHANTI
KIROLAK**
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

MARIO ZUBIAGA ▶ 18/98+ LAN TALDEKO KIDEA

«Eskubide zibil eta politikoen urratzeak guztioi egiten digu kalte»

Aitziber Laskibar-Berria ▶ Euskal Herria zeharkatu ondoren, atzo amaitu zuen bere ibilbidea 18/98+ lan taldearen Kaiera ekimenak, Durangon. Ibilbide horretan eskualdea ere bisitatu du Kaiera-k; urriaren 24an, hain zuzen ere, Villabonan jaso zituen Tolosaldeko herritarren iritziak eta ekarpenak. Guztira, 200 lagun daude auzipeturik makrosumarioan, tartean eskualdeko zazpi: Mikel Egibar zizurkildarra, Nekane Txapartegi asteasuarra, Julen Zelarain billabonatarra, eta Martxelo Otamendi, Jose Mari Olarra, Jokin Gorostidi eta Mario Zubiaga tolosarrak. Azken honek Kaiera ekimena eta epaiketa bera izan ditu hizpide elkarrizketan.

Euskal Herria zeharkatu du Kaiera-k. Zein helburu izan du ekimenak?

Gizartean eskubide zibil eta politikoen inguruko kezka piztea eta bultzatzea da ekimenaren helburua. Noski, horren atzean, arrazoia da hastear dela 19/98 auzia-ren epaiketa. Haika-Segiren aurkako epaiketa izan zenean, arrakastatsua izan zen, eta eragile askok bere egin zuten leloa finkatu genuen: eskubide zibil eta politikoen defentsa. Bide horretan, Kaiera mobilizazio ekimen modura planteatu genuen. Baina, horrez gain, epaiketaren aurrean jarrera defentsiboa izatetik nolabait hedakorra den jarrera erakustera igaro nahi genuen. Geure burua defendituko dugu, errugabeak garelako erakutsi, epaiketa honek ez daukala zentzurik. Baina zertarako? Geure buruak libratzeko solik? Badakigu ez daukagula zeregirik. Beraz, goazen kanpaina politikoago bat egitera; oinarrian dauden urratzeak azalaratzea.

Gizartera zabaldu beharrak zer esan nahi du, gizarteak ez duela barneratuta eskubide horien urratzea?

Gizarte multzo handiak izan ditu kalteak eskubide murrizketari horien aurka. Eta argi dago sektore zabal bat kezkatuta dagoela eskubide zibil eta politi-

koak urratzen direlako. Baina haratago joan nahi dugu. Gizarte osoak barneratzea eskubide zibil eta politikoen urratzeak guztioi egiten digula kalte.

Ibilbidea osatuta, zer nolako bilduma erakutsiko du Kaiera-k?

Gure asmoa izan da nolabaiteko agiri kolektibo ibiltaria egitea. Kaiera-k ez du hasieratik inolako idatzirik, hitzaurrea besterik ez du. Mamia eskubide zibil eta politikoen inguruan bildu diren kezuak, aldarrikapenak eta iritziak dira. Horrek aberastasun handia ematen dio. Azkenean, agiri kolektiboa da, eta guztion artean osatzen dugu Euskal Herrian eskubide zibil eta politikoen inguruan dauden sentsibilitateen argazkia. Eta, jarrerak ikusita, seguruenik aspaldian egin den argazkirik fidelena aterako da. Hori da lortu nahi genuen irudia. Jaso ditugun iritziak sarritan kontrajarriak izango dira, baina horrelakoa da euskal gizartea.

Ez zen hutsetik abiatu, ehun bat pertsona ezagunen ekarpenak jasota baizik.

Zuriz abiatzeko aukera ere aztertu genuen. Baina esparru zabaleko eragile eta pertsona esanguratsuen ekarpenak jasota abiatzeko erakutsiko zuen lortu nahi genuena. Zuriz abiatzeko arrisku bat zuen: lehenengo egunetan Kaiera-k hartzen zuten irudiaren arabera, jende mota bat urrunduko zitekeela. Gure asmoa Euskal Herri osoa biltzea zen ekarpen horien bitartez. Eta lortu genuen abiapuntua ez zen gutxi. Batetik, Aldaketako jendea dago eta, bestetik, 19/98 auziaren auzipetuta daudenak; Imanol Zubero batetik hasita, auzipetuetaraino eta, bidean, denetik. Uste dut PPko jendea izan ezlik, Euskal Herrian dauden sentsibilitate ideologiko guztiak dau-



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

dela bilduta. Horrek ez du esan nahi ados daudela, noski, baina bildu egin dira ekimen baten inguruan.

Sentsibilitate politiko gehienetako pertsonak bildu direla diozu. Izan al daiteke beste ekimenetarako abiapuntua?

Horrelako gizarte ekimenetan jartzen dira epe ertain batean jaso daitezkeen fruituen haziak. Inoiz ez dakizu, baina egia da lan hau egiteko harremanetan jarri garelako oso jende desberdinarekin. Gizarte lan bat egin da, eta nik esango nuke epe er-

tainera fruituak emango dituela gizarte arloan zein politikotan. Eta uste dut bilakaera politikotan ere lagun dezakeela. Ia alde guztiek egiten duten irakurketa da epaiketa hori oztopo bilakatzen ari direla normalizazioaren bilakaerako edo gatazkaren konponbiderako. Espainiako Gobernuak ere ziurrenik ez daki nola kudeatu auzi horiek. Alderdi Sozialistako sektore batzuentzako eta Gobernuarentzako arazo dira. Eta oztopoak kendu egin behar dira aurretik.

Duela zazpi urte hasi zen orain egingo den epaiketaren sumarioa. Orduko eta egungo egoera politikoa ez da bera. Zer espero daiteke?

Arlo juridiko-teknikotik, oso nabarmen geratuko da Garzonen instrukzioa irizpide politikoen arabera hasitakoa dela, eta jazarpen ideologikoa duela atzean. Ikuspegi politikotik, jakitun gara orain dagoen giro politikoa asko baldintza dezakeela epaiketa, epaia bera eta zigorraren kudeaketa. Gizarte arloan, uste dut oso agerian geratuko dela zer nolako astakeriak egin diren hainbat auzitan, konponbideak nondik nora jo behar duen eta, noski, arerioaren jazarpen ideologiko, politiko eta judiziala ez dela soluzioa.

Zu zeu auzipetua zara. Hamabi urteko espetze zigorra eskatu dute zuretzat. Nora zozzen sentipena duzu?

Uste dut horma baten kontra joko dugun sentipenarekin goazela, baina badaudela zirikituak hori hausteko. Gazteen epaiketan zirikitu horiek badaudela ikusi genuen.

Zein da epaiketak erakutsiko duen argazkia?

Gure aldeko argazkia koloretsua da; beste aldekoa, aldiz, zuri-beltzekoa. Kolore horiekin zer erakutsiko dugun Madrilen? Euskal Herriak duen pluraltasuna ezin dela ito jazarpen ideologiko monolitikoen bidez eta zuri-beltzeko munduaren irakurketaren bidez. Etsaia-laguna zuri-beltzeko irakurketan oinarritutako politika alboratu behar da. Politikak, azken finean, dagoen aniztasun hori kudeatzeko modu irekiak finkatu behar ditu, adostasunean oinarrituta; aniztasuna kudeatzeko modu zentzuzkoak finkatu. Neurri batean, gure epaiketan atea itxi nahi diogu politika egiteko zuri-beltzeko ereduari.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberriak ▶

Jose Ramon Barrena Treku

Atzo hil zen, Zumaian, 58 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Emaztea: Genevea Elorriaga: alaba: Iruñe; anai-arrebak: Jesus Mari eta Josepa Aguirre, Nati eta Julio Lopez, M^a Carmen eta Antxon Arrieta, M^a Luisa (Emilio Osaren alarguna), Tere Elorriaga, M^a Pilar Elorriaga eta Joaquín Cobo; izaba: Maritxu treku; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitezela bihar hilaren 14an, arratsaldeko 19:00etan, Zumaiko San Pedro parrokiaren egingo den hiletara.

oharra ▶ gorpua Zumaiko beltalategian egingo da gaur 13:30ak arte, eta ondoren kaposantua eramango da. **ZUMAIA**, 2005eko azaroaren 13a

Jose Maria Malkorra Arrastoa

jauna
-Goian bego-

Udazken koloretan landen lurrikak zeharkatuz hitaz oroit ta higan nauk hain soil hire heriotzean hain xume adiorik gabeko partitzean.

Etxeokoa

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitezela GAUR IGANDEA, arratsaldeko BOSTETAN, OREXAKO SANTA KRUZ parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

hildakoa ▶ Ormaiztegui baserria
oharra ▶ gorpua Tolosaldeko Vascongandako beltalategian egingo da hileta ordura arte. **OREXAN**, 2005eko azaroaren 13an

PILOTA

Trinketearen xarma

Munduko Txapelketan izandako esperientziarekin eta lortutako emaitzekin «pozik» itzuli dira Txiletik eskualdeko bost pilotari gazteak



Munduean izan diren eskualdeko espainia eta pilotari batzuk Vilabonako frontoian hizketan, Urzi Arotia falta zen. JOSEMI SAIZAR

JOSEMI SAIZAR

Pilotan txapelidun izatea eta xaren hirugarren postua lortu dute Tolosaldeko pilotariek Txilen jokatu duen Munduko Pilota Txapelketan. 22 urte azpiko txapelketa izan da eta trinketearen jokatu da. Partidu gehienak Vña del Mar-en jokatu dira, eta beste batzuk Santiago hiriburuan. Eskuz, palaz, paletaz eta xarez —batzuk bana, besteak binaka— aritu dira urriaren azken bi asteetan jokatzeko berderatzen herrialdeetako ordezkariak. Argentinia, Ekuador, Espainia, Frantzia, Kuba, Mexiko, Txile, Uruguai eta Venezuela. Eskual Herriak parte hartze-

ko aukerarik ez duenez, Espainiaren ordezkari gisa joan dira eskualdeko pilotari gazteak. Modalitate bakortzean bikote bakortze osatzeko lau jokalaririk izan dira Txilera, eta txandatu jokatu dute. Laurak zuriz jantzita egoten dira eta norbaitek mina hartzen bada ordezkaria ateratzen da, baina hori oso gutxitan gertatzen omen da.

Isosko Urzikun berezietagarr eta Nagore Arozena lizarzarrak paleian aritzen dira, eta txapelidunak izan dira. Urzikun jokatu zuen finala Ana Bermejo alizararrenekin eta Uruguairi irabazi zioten. Egoitz Bengoetxea bilabonatarra eta Erik Iñurritia eta Urzi Arotia irurarrek xarean aritzen dira, eta hirugarren postua lortu dute. Bi irurarrek

artu ziren finalerdietan eta galdu egin zuten Frantzia txapelidunaren aurka. Hirugarren postua lortzeko Argentinari irabazi zioten bilabonatarrek eta Mikel Elxarri irundarrak. «Pena izan zen ligaxkan Kubaren kontra 40-39 galduta. Bestela, finalerdietan Argentinaren kontra jokatu genuen, eta finaleran sartzeko eta zilarra lortzeko aukera genuen», dio Bengoetxek.

Txapelketako maila

Gazteak dira denak. Batzuk urte batzuk badaramate pilotan, baina Bengoetxearen eta Iñurritarren kasuan duela hilabete gutxi «berreskuratu» egin dituzte txapelketa honetarako

KONPETIZIOA

Trinketeko konpetizio gutxi dago aurkari gutxi izan delako; telebistan gutxi ateratzen da

XAREA

Trinketearen «bizitasuna» eta xarearen «beretzitasuna» aipatzen dute pilotariek

EUSKAL SELEKZIOA

Noizbait euskal selekzioa lortzea «oso zaila» ikusten dute gazte hauek, «gai politikoak» delako

arekin —Iosi Lopezegi irurararenekin ere aritu dira bestea lesionatuta egin denean— munitak. «Malla baxuagoa izango zala uste genuen, baina kontratu ginen maila altu zegoela», dio berezietagarrak. Lizarzarrak partidu bakarra jokatu eta galdutako egin zuten. Aurkari gutxi denez, konpetizio gutxi izaten duteela diote bi neskek. Eskual Herriko eta Espainiako txapelketak, torseoren bat. «Nire lagunak ez dakite zer den trinketea bat. Batzuk ez dute inoiz ikusi ere egin, dio Arozek. Badakizu, telebistan gutxi ateratzen da trinketea. «Pondoa behar da eta fisikoki prestatzeko korrika eta frontoian aritzen gara», dio Urzikun. Paleta argentinarraren aritzen dira «errazena» delako eta egusturra probatu lukete xare eta pala, baina aukerarik ez dute.

Konpetizioak aparte, afizio bereko lagunak ezagutzen izan da «politena» mundua honetan Bengoetxearentzat. Bi neskek aurkari batzuk ezagunak zituzten jada eta ondo moldatu dira, baina «frantziarrek oso iaurreman aritu» izan dute entrenatzaileek ez dietelako uzten.

BIXKENTE ETXANIZ PILOTA EPLEA

«Jende gutxi dabil trinketean; gazteek futbolera jotzen dute»

Epaile lanetan urte asko darabizta Bixente Etxaniz irurizarrak —aspalditxik da Vilabonan—, Oraingoan, Txileko munduean aritzea egokitu zait. Hiruzi asalditxik dion han eta bere hiltxilek lizuzen bizirik-koak.

Notatzen zara epaile? Erreboten jokatzeko nuen Vilabonan eta asperru nintzenean epaile lanetan hasi nintzen. Ute batean biak balera eginen nintzen, baina gero jokatuareari utzi egin behar izan nien, federazioak hala esanda. Urte asko darabizta, 25 bat edo. Afizio bat da, ez naiz honetazki bizi.

Notatzen zara epaile? Erreboten jokatzeko nuen Vilabonan eta asperru nintzenean epaile lanetan hasi nintzen. Ute batean biak balera eginen nintzen, baina gero jokatuareari utzi egin behar izan nien, federazioak hala esanda. Urte asko darabizta, 25 bat edo. Afizio bat da, ez naiz honetazki bizi.

«Nire lagunak ez dakite zer den trinketea bat. Batzuk ez dute inoiz ikusi ere egin, dio Arozek. Badakizu, telebistan gutxi ateratzen da trinketea. «Pondoa behar da eta fisikoki prestatzeko korrika eta frontoian aritzen gara», dio Urzikun. Paleta argentinarraren aritzen dira «errazena» delako eta egusturra probatu lukete xare eta pala, baina aukerarik ez dute.

Konpetizioak aparte, afizio bereko lagunak ezagutzen izan da «politena» mundua honetan Bengoetxearentzat. Bi neskek aurkari batzuk ezagunak zituzten jada eta ondo moldatu dira, baina «frantziarrek oso iaurreman aritu» izan dute entrenatzaileek ez dietelako uzten.

tantoa, norik atera behar duen eta zergatik. — Zer moduko maila izan da Txilen? Positiboa izan da. Jende gutxi dabil trinketean. Gazteek futbolera jotzen dute Tolosaldekoer gain, nafarrak solik aritzen dira trinketean eta horiek joan dira heusendik. Egoitz Bengoetxea bilabonatarra besteak ere nuen ezagutzen. Eskuz hemen ez da ia inor ibiltzen. Frantzia izan da nagusi —beti bezala—. Ondoren, Espainia, Kuba, Mexiko... gelditzen dira.

«Neketsua izan al da? Partidu pila bat arribatatu dute, egunero bat, bi, hiru. Gero, besteak lagunetan. Egun osoa frontoian pasatzen genuen. Gauetan hoteletik ateratzeko goporrak ez zitzaizkiguten.

«Gazteak al zaitu Txile? Ez, guzue hauenkin ez dago arazorik. Helduagoekin edo profesionalekin bai, zakur zaharagoak direlako. Hegoamerikarrek eta frantziarrek protestak gehiago egiten dute. Azkar emakak behar izaten dugu. Bestalde, Hego Amerikako epaileak berberdunak dira, zorrotzoak, tantoan azalpenak ematen dituzte —zergatik den



JOSEMI SAIZAR

«Neketsua izan al da? Partidu pila bat arribatatu dute, egunero bat, bi, hiru. Gero, besteak lagunetan. Egun osoa frontoian pasatzen genuen. Gauetan hoteletik ateratzeko goporrak ez zitzaizkiguten.

«Gazteak al zaitu Txile? Ez, guzue hauenkin ez dago arazorik. Helduagoekin edo profesionalekin bai, zakur zaharagoak direlako. Hegoamerikarrek eta frantziarrek protestak gehiago egiten dute. Azkar emakak behar izaten dugu. Bestalde, Hego Amerikako epaileak berberdunak dira, zorrotzoak, tantoan azalpenak ematen dituzte —zergatik den

ESKUALDEKO PROTAGONISTAK

Txilen jokatu berri den 22 urte azpiko Munduko Pilota Txapelketan eskualdeko ordezkari hauek izan dira.

ITSASO URZIKU

PALETA, JOKALARIA. Herria, Berasgog. Adina, 19 urte. Ekartea, Kuku. Zengabarren munduala. Bigarrena. Postua, Txapeliduna.

NAGORE ENSAOLA

PALETA, JOKALARIA. Herria, Lizartza. Adina, 19 urte. Ekartea, Kuku. Zengabarren munduala. Bigarrena. Postua, Txapeliduna.

EGOITZ BENGOTXEA

XARE, JOKALARIA. Herria, Vilabona. Adina, 21 urte. Ekartea, Behar. Zana. Zengabarren munduala. Lehena. Postua, Hirugarrena.

ERIK IÑURRITA

XARE, JOKALARIA. Herria, Inura. Adina, 18 urte. Ekartea, Ametsa. Zengabarren munduala. Lehena. Postua, Hirugarrena.

URZTI URKOLA

XARE, JOKALARIA. Herria, Inura. Adina, 16 urte. Ekartea, Ametsa. Zengabarren munduala. Lehena. Postua, Hirugarrena.

«Neketsua izan al da? Partidu pila bat arribatatu dute, egunero bat, bi, hiru. Gero, besteak lagunetan. Egun osoa frontoian pasatzen genuen. Gauetan hoteletik ateratzeko goporrak ez zitzaizkiguten.

«Gazteak al zaitu Txile? Ez, guzue hauenkin ez dago arazorik. Helduagoekin edo profesionalekin bai, zakur zaharagoak direlako. Hegoamerikarrek eta frantziarrek protestak gehiago egiten dute. Azkar emakak behar izaten dugu. Bestalde, Hego Amerikako epaileak berberdunak dira, zorrotzoak, tantoan azalpenak ematen dituzte —zergatik den

«Neketsua izan al da? Partidu pila bat arribatatu dute, egunero bat, bi, hiru. Gero, besteak lagunetan. Egun osoa frontoian pasatzen genuen. Gauetan hoteletik ateratzeko goporrak ez zitzaizkiguten.

«Gazteak al zaitu Txile? Ez, guzue hauenkin ez dago arazorik. Helduagoekin edo profesionalekin bai, zakur zaharagoak direlako. Hegoamerikarrek eta frantziarrek protestak gehiago egiten dute. Azkar emakak behar izaten dugu. Bestalde, Hego Amerikako epaileak berberdunak dira, zorrotzoak, tantoan azalpenak ematen dituzte —zergatik den

Advertisement for 'Nola bilatu Interneten?' featuring a computer screen and various logos.

Iragarki laburrak

Table with 4 columns: Airportsak, aslelehenetik ostiralera, Gidariak, and Mendaro eta Aroeta. Contains contact information for various services.

Aurrera jarraitzeko prest

Aurrera begira, trinketeko modalitate hauetan jarraitu nahi dute bost pilotariek: «gusturra

AZOKA ▶

Erosle eta salmenta kopuru ona atzoko azokan

Hotzak eta euriak ez zuen eraginik izan; udako produktuak desagertzen ari dira

PABLO ALBERDI

Dirudienez, atzoko hotzak eta euriak ez zuen eragin handirik izan erosleengan. Kopurua ez zen makala izan eta, goizaren bukaeran, salmenten kopurua ona izan zen.

Eskaintzan, ordea, eragina nabaritzen hasi da. Geratzen diren udako produktuak pixkanaka desagertzen ari dira, Ibarrako piparra, adibidez, eta neguko produktuak nagusi izaten ari dira mahaie-tan. Azelga, porrua, azenarioa, aza, azalorea, bruselaza, brokolia, romanesku aza, espinaka, eskarola lisua eta rizatua edota tipula barra-barra ageri dira.

Perretxikoen eskaintza, neguaren iristearekin batera, hemendik bi-hiru atsetara desagertu egingo da, eta baita ehiza zerrenda ere. Atzokan, ondoak, ziza horiak, gamula, mortxela, mendiko angula eta pieazul deituriko perretxikoa izan ziren.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Ziklamena	5,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Pensamientoa	1,00	-
Porrua	2,40	-
Perrejila (bat)	0,05	0,06

Bertako produktuak		
Usoa	5,00	6,00
Onddo	10,00	22,00
Gaztaina	2,00	2,50

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Letxua	1,00	-

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumea. Emakumea behar da Ibarrarako, ebeko lanak egin eta ume bat zaintzeko 09:00etatik 14:00etara. Interesatuak deitu 627 52 99 47 telefono zenbakira.

MAGREBEKO II. JARDUNALDIAK ▶



Tea dastatzea. Bertako erara eginiko te berezia hartzeko aukera paregabea izan zen atzoko azokan. I. TERRADILLOS



Idazkera bereberekotailerra. Asko izan ziren beren izena idazkera bereberekon idatzita ikusi nahi izan zutenak. I. TERRADILLOS



Jende ugari. Goiz osoan makina bat jende gerturatu zen Triangulora Magrebeko kulturak erakarrita. I. TERRADILLOS



Bertako produktuak. Zartagiko ogia eta pintxo morunoak prestatzen jardun zuten. Jendeak gustura probatu zituen. I. TERRADILLOS

Magrebeko kulturak erakarrita

Atzo amaitu ziren Magrebeko II. Jardunaldiak; jende ugari hartu zuen parte egun osoan antolatu zituzten ekitaldietan

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo eman zieten amaiera Tolosan aste honetan antolatu du-

ten Magrebeko II. Jardunaldiei. Hala, astean zehar, hainbat hitzaldi izan dira, mestizajea bikoteetan, kulturartekotasuna eta inmigrazioa Euskal Herrian, Islama eta Mendebaldeko Europa bezalako gaien inguruan, eta baita inmigrazio klandestinoari buruzko proiektio bat ere.

Ekitaldi nagusiak, ordea, atzo izan ziren. Goizean, azoka berezia antolatu zuten Triangulo plazan, eta jendeak Magrebeko kulturaren berezitasunak gertutik ikusteko aukera izan zuen; hala nola, henna tai-

lerrean, nola egiten den ikusteko az gain, azalpenak eman zituzten: zertarako erabiltzen den, zein helbururekin...

Asko eta asko izan ziren beren izena berebere idazkera idatzirik ikusi nahi izan zutenak. Halaber, bertako produktu tipikoak dastatzeko parada ere izan zuten Triangulo karpata bertaratu zirenek, pintxo morunoak, tea eta zartagiko ogia, kasu.

Bertako giroa alaitzeko, Afrikako doinuak izan ziren en-tzungai eguerdian Gnawa musika taldearen eskutik. Eta gaz-

tetxoentzat, berriz, ipuin kontaketa saioa antolatu zuten. Era berean, ikusgai izan zen goiz osoan Ceuta eta Melillako hesiari buruzko kale erakusketa, hainbat argazki eta artikuluekin hornitua. Jendea erruz gerturatu zen Triangulo plazara, Magrebeko kulturaren ingurukoek erakarrita.

Arratsaldean izan zuten jarraipena ekitaldiek Aranburu Jauregian ikusgai izan zen Zuriola antzerki taldearen *Ni, Mohamed* izeneko antzerki saioarekin. Gauean, jende andana bildu zen Abastoseko merkatuan egin zuten afarian. Eta festa goizaldera arte luzatu zen, afaria amaitzean Cheb Mouguit Bartzelonako taldeak Marokoko doinuak zabaltu baitzituen non-nahi. Doinuen harira, sabel dantza eginez aritu ziren bi dantzari, eta pixkanaka horien atzetik animatzen joan zirenak ere izan ziren, erritmo dantzagarriek bultzatuta.

BALIARRAIN ▶ KULTURA

Buztinarekin jolasean Kultur Elejiran

I. Garcia ▶ Baliarraingo Kultur Elejira badoa pixkanaka aurrera. Atzokoan, hamabost bat lagun, haur zein heldu, elkartu ziren kultur gelan alfareri eta buztin modelatze tailerrean. Gustura ikusten ziren tailerreko parte-hartzaileak buztinarekin jolasean, behatzak eta esku guztia erabiliz. Gaur, berriz, herri bazkariaren txanda izango da. Herriko Arkaitz elkarteak antolatu du ekitaldia. Menu goxoaz gain, bukaeran gaztain jatea egingo dute. Ondoren, txerriaren zozketa egingo dute. I. GARCIA



AMASA ▶ SANMARTINAK

Etxekoak irabazle, Amasaren eta Gazteluren arteko lehia

Ikuskizun polita eman zuten atzo zortzi kirolariek San Martin jaien baitan

IMANOL GARCIA

«Hemengo festetan beti eguraldi txarra egiten du», zioen gazteluar batek atzo Amasan. Hotzak eta euriak, ordea, ez zituzten sanmartinetako ekitaldiak zapuztu. Goizean goiz 129 haurrek hartu zuten parte kro-sean. Eguerdian, herri bazkariaren aurretik, eguneko ekitaldirik bereziena: amasarren eta gazteluarren arteko apustua.

Lehia benetan estua izan zen eta azken unera arte ez zen erabaki. Amasarrek irabazi zuten, gehienez bost segundoko tartearekin. Amasatik, bizikletan, Eneko Gurrutxaga aritu zen; korrikan, Jose Ramon Ga-

larraga; aizkoran, Garikoitz Etxeberria; eta segan, Andoni Zuriarrain. Gaztelutik, bizikletan, Jon Etxeberria; korrika, Jon Goikoetxea *Boli*; aizkoran, Aitor Esnaola; eta segan, Joxe Gabirondo. Ikuskizun polita eman zuten zortzi kirolariek, eta agian errebantxa izango da Gazteluko jaietan.

Gaur amaituko dira San Martin jaien egitaraua —datorren igandean mendiatloia izango bada ere— eta izango da zer ikusi. Eguerdian asto lasterketa berezia egingo dute, moztorroak jantzita joatea bete beharreko baldintza baita. Arratsaldean, berriz, erremonte partida profesionala izango da.



Gabirondo, aurrean, eta Zuriarrain sega probaren une batean. I. GARCIA



Bizikleta, korrika eta aizkora probetako irudiak; gogoz aritu ziren lehia parte hartu zuten kirolariek, eta ikuskizun polita eskaini zuten. I. GARCIA

ADUNA ▶

Kultur Asteari ekingo diote bihar bi proiektorekin

Datorren aste guztian zehar Kultur Astea antolatu dute Adunan. Egunero ekitaldi bat izango da, eta bihar bertan ekingo diote egitarauari. Urrian egindako Upelera jaialdian grabatutako bi bideoen aurkezpena eta proiektzioa eskainiko dute Elordi plazako aretoan, 20:00etan hasita. Bideoetako bat egun Tolosaldean sargardoa nola egiten den erakusten du. Besteak, Upelera jaialdian grabatutakoa, sargardoa lehengo erara nola egiten zen azaltzen du.

ALEGIA ▶

Maite Franco ipuin kontalaria gaur liburutegian

Maite Franco ariko da gaur arratsaldean 5 eta 8 urte bertartekoentzat ipuin kontari Alegiako Udal Liburutegian. Hitzordua, 18:00etan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebexa: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Upelera jaialdian grabatutako bi bideoen aurkezpena eta proiektzioa. Bihar, 20:00etan, Elordi plazako aretoan. Kultur Astearren baitan.

Albiztur. EHNA tramitatzeko aukera. 11:30etik 14:00etara, udaletxean.

Alegia. Maite Franco ipuin kontalariaren saioa. 18:00etan, Udal Liburutegian.

Baliarrain. EHNA tramitatzeko aukera. 12:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean.

Baliarrain. Herri bazkaria eta gaztain jatea Arkaitz elkartearen Ondoren, txerriaren zozketa. Kultur Elejiraren baitan.

Berastegi. Odol-ematea. Bihar, 18:30ean, Muñagorri eskolan.

Tolosa. Angel Navasen proiektzioa, McKinley-ren igoeraz. Bihar, 20:00etan, Oargi elkartearen. Mendi Hamabostaldiaren baitan.

Tolosa. Xake azkarreko IV. Urdiña Txiki Saria. 09:30ean, Aurrera elkartearen.

JAIKAK

Amasa. 12:00etan, asto eta mozorro lehiaketa; 17:00etan, erremonte partida Zalakin (Villabona), Ibarzabal (Amasa), Astibia (Leitza) eta Agirrezabala (Azpeitia) profesionalekin; ondoren, herri kirolak; 24:00etan, erromeria eta XVI. Inbixorren aldaketa.

ZINEMA

Leitza. *Codigo 46.* 19:30ean, zinema aretoan.

Villabona. *Rolo eta ilarraren sekretua.* 17:00etan, Gurea zinemaren. Euskaraz. Sarrera: 2,5 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

Bihar
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaro, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Elurraren beharrik ez

HERNIALDE ▶ 58 parte-hartzaile izan zituen Rolleski Igoerak; skate eran aritu zen Alpino Uzturreko Joseba Rojok egin zuen denborarik onena



Skating modalitateko parte-hartzaileak Hernialdeko Bentatik igarotzean. INIGO TERRADILLOS



Klasiko erako lasterkariak igoerari ekiteko prest Hernialdeko Bentan. INIGO TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Hernialdeko IV. Rolleski Igoera izan zen atzo Tolosaldeko Alpino Uzturre elkartearen antolatuta. Denera, 58 izan ziren bi gurgildun eski modukoetan lehiatu zirenak, Tolosaldeko batetik, baina baita Gipuzkoako zein Nafarroako hainbat herritatik etorriak ere.

Ibilbideak bi zati izan zituen: 800 metro lauak eta 3,2 kilometroko igoera ondoren. Eta modalitateak ere bi: klasikoa eta skating. Klasikoko igoera soilik egin zuten, hau da, 3,2 kilometro Hernialdeko Bentatik abiatuta; eta skating-ekoek, berriz, ibilbide guztia egin behar zuten Tolosaldeko Belate auzotik hasita. Skating-ean, helduetan, Hernialdeko aldapa gogorra lehen igo zuena Alpino Uzturreko Joseba Rojo tolosarra izan zen, 14 minutu eta 24 segundoko denborarekin. Helduen mailan, baina nesketan, lehena Marta Gonzalez nafarra izan zen, 22 minutu eta 7 segundorekin; infantilen mailan, mutiletan, Alpino Uzturreko Erlantz Gonzalez tolosarra izan zen lehena, eta 16 minutu eta 16 segundo behar izan zituen; nesketan, Maialen Lopez irundarra izan zen lehena, 24 minutu eta 34 segundorekin. Klasiko eran, berriz, helduetan Unai Sanz nafarra, 15 minutu eta 16 segundorekin, eta Alpino Uzturreko Dina Mendikute hernialdearra, 19 minutu eta 2 segundorekin, izan ziren lehenak; infantiletan, Alpino Uzturreko Imanol Rojo (15'10") eta Eneitz Gonzalez (27'23") tolosarrak gailendu ziren.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitor Plazaola Iguaran.
Bihar 7 urte egiten ditu.
Etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Inaki Apalanza Matxain (Ibarra). Bihar 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Urtzi Goñi Lasa (Gaztelu). Gaur 4 urte. Zorionak guraso eta arrebaren partetik.

HITZA, zorian agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA Udaleko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!